

edozein proposiziori: eta adiera deskriptiborik ez zuena sasi-proposiziotzat hartzen zuten (sinnlos edo senseless gisa).

### Determinismoa

1. Metafisikan: Kausalitate orokorraren printzipioak ulertezten digu nola fenomeno guztiak proportziozko zergatien ondorioak diren. Ezinaldatzuko ordena iraunkorrak antolatzen ditu gertakari guztiak; hala non zerbait egiten edo ezeztatzen delarik beste zerbait egin erazten edo ezeztatzen bait du. Munduko izakiek batasun orokorra antolatzen dute, zatiak elkarri lotuak daudelarik, halabeharrendaren meneko, beren iraupenean (denboran) eta egoeran (espazioan).

2. Zientzietan: "Zergati berdinek egoera berdinetan ondorio berdinak ekartzen dituzte". Hau da kausalitatearen printzipioa. C. Bernard-en arabera: "esperientzi metoedoaren helburua beharrezko zergati hurbilaren bilatzea da". Gaurko jakintsuentzat, determinismoa gure izpirituaeren lege nagusia da eta ikerketa-metodoen abiapuntua. Ez dute kausalitatea aipatzen, baina faktore askoren arteko koerlazioak agerteratzen dituzten zientzi legeak finkatzen ari dira. Hauek egiaztatuak dira aurrikusgarritasun ziurra ematen dutelarik; egoerak zekazki ezagutu eta ondorioak aitzinetik zuzen jakiten ahal dira.

Estatistikazko determinismoak fenomeno-multzok aurretik agertzen ditu, baina ez fenomeno bakarrik. Adibidez, hauteskunde baten emaitzak inkesta baten bidez aurretik ikus daitezke. Fisikan elektroioi-sorta baten mugidura finkatua da, baina ez elektroioi batena.

Heisenberg-ek indeterminismoa deitzen du elektroioiaren lastertasuna eta zuzenbidea elkarrekin ezin jakina, argizpia izanik denbora berean ikergai eta ikerbide.

3. Psikologian: Bizitza psikikoa aurretik antolatua da iduriz asko faktorengatik: fisika-legeek, biologi beharrek eta gizarte-eraginek gure askatasuna mugatzen dute.

Zenbaitek diote aukerarena ezinezkoa dela, nahia aitzinetik finkatua delako halabeharrez, biologiazko sen eta gizarte-bortxengatik. Beste teoria bat: fenomeno psikikoa beste fenomeno psikikoei lotuak dira batasun orokorra moldatzen dutela: askatasuna da arrazoizko eta hunkipenezko motiboen aldatzea. J.P.Sartre-k dio: "Askatasunaren binperra fatalismoa da, baina ez determinismoa". Leibnitz-en arabera, motibo indartsuek nahia mugatzen du, hargatik askatasuna kendu gabe.

Erramun Baxok

### Deus ex machina

Makina batez jaitsitako Jainkoa.

Antzina, antzesten zen dramari zailtasunak zerizkionean, jainko bat eramaten zen eszenara, naturaz gaindiko aterabideari esker zailtasun horiek gaindi zitzen. Gaur egun, zailtasun bat erabakitzeko artifizialki sartzen den edozein pertsona, gauza edo kontzepturi deritzo Deus ex machina esaldia.

### Deussen, Paul

Oberdreis-en (Westerwald) 1845ean jaio eta Kiel-en 1919an hila. Berlin eta Kiel-en irakasle izan zen. Schopenhauer-en jarraitzaile sutsua. Deussen-en pentsamendua asmoa filosofiaren argitan erlijio guztien sustrai orokorra aurkitzea izan zen. Filosofiaren historiagatik nabarmendu zen. Obrak: Die Elemente der Metaphysik, 1877; Das System der Vedanta, 1883; Der kategorische Imperativ, 1891.

### Deustua, Alejandro

Huancayo-n (Peru) 1849an jaio eta 1945ean hildako filosofoa, bere herriko mugimendu filosofiko osoan eragin handia izan zuena. Askatasuna eman zuen balore guztien oinarritzat. Filosofia praktikora jo zuen, intelektualismoa kritikatu. Obrak: Las ideas de orden y libertad en la historia del pensamiento humano, 1917-1922; Los sistemas de moral, 1938-1940.

### Dewey, John

1859an jaio eta 1952an hildako Ipar Amerikako filosofoa. Bertan entzute eta eragin handikoa. Batez ere filosofiaren arlo praktikoa landu zituen, etikaz eta hezkuntzaz arduraturaz. W. James eta C.S. Peirce-ren eraginpean, adimenaren ikuspegi naturalista batetik abiatuz, balioaren arazoak egiaarena barnematen duela pentsatzen zuen. \*Pragmatismoaren korronte barruan, instrumentalismoa deituriko joeraren buru bera da. Obrak: Psychology, 1886; Outline of Ethics, 1891; Studies in Logical Theory, 1903; Democracy and Education, 1916.

### Dharma

Mundua eraentzen duen legea da dharma: ordena kosmikoa izaki bakoitzak bere lekua eta bere eginkizuna du, Dharma-ren arabera. Esangura honen bidetik inoiz jainkotzat ere hartu ohi da Dharma. Bizitzaren azalpen guztien sustraizko printzipioa bait da, izaki guztiak daude derrigorrez lege absolutu horren menpe. Hortik Dharma egia absolututzat eta jainkotzat hartzera urrats txikia dago, bereziki indiar mundu-ikuskeran.

Ordena kosmiko horren barruan gizaki bakoitzak ere bere lekua, berezia, dauka, eta era berean jokabiderako eta bizikerarako arau bere-bereak finkatuta dauzka; sexuak, adinak, bizigarriak, arrazak, kastak, eta abarrek determinatzen dituzte arauok. Hitz laburrez, gizaki bakoitzak bere dharma pertsonala du, dharma kosmikoaren barruan. Dharma-ren argitan gizakia mikrokosmosa da, \*makrokosmosaren arabera. Eta dharma kosmikoaren arabera jokatzeko duen neurrian bere dharma pertsonalaren bidetik ere ari da. Honela etika sozialaren eta pertsonalaren oinarria da dharma. Horren arabera jokatzeko da betebeharrak morala eta horretantxe datza \*bertutēa.

Dharma berbak, azkenik, Mendebaldean erlijioa deitzen duguna adierazten du. Izan ere, India-ko erlijio-sistemek eta beraien salbamen kontzeptuak edukin kosmiko nabarmena du. Dharma-k, beraz, erlijiozko legeen eta jokabide etikoaren multzoa adierazten du.

Bide honetatik, Budismoa bera dharma da: hots, Buda-k irakatsitako legeek eta bertuteek osotzen dute dharma; \*Hinduismoa ere dharma da: hots, erlijiozko agindu eta etikazko lege hinduek konkretatzen dute dharma. Era berean, indiar ikuspegitik Islamismoa eta Kristautasuna dharma dira. Dharma = Erlijioa.

Paulo Agirrebaltzategi

Ik. Hinduismoa.

### Diakronia

Kontzeptu hau Saussure hizkuntzalariari zor diogu, nahiz hainbat aitzindarik lehenago landu izan, hala nola Comte, Brentano eta W. Humboldt-ek bereziki. Etimologiak adierazten duenez, diakronia hitzak "denboran zehar", "denboran barrena" esan nahi du. Saussure termino honetaz baliatu zen hizkuntzak aztertzeke metodo berezi bat deskribatzeko, \*"sinkronia" kontzeptuari ihardukiz. Hizkuntza baten azterketa diakronikoak, beraz, azterketa kronologiko-historiko bat adierazten du, "denbora-historian zehar" eginikoa, hain zuzen. Geroztik, giza zientzia gehienetara hedatu da kontzeptu honen erabilera, alor bakoitzeko berezitasunak kontuan edukiz: antropologia, historia, psikoanalisi eta filosofia batipat.

Ik. Hizkuntzalaritza.

### Dialektika

Bi ikusgune nagusiotatik begiratuta azter daiteke filosofian "dialektika" hitzaren bidez adierazi izan dena: Batetik, zerbait ikusi, aditu, ulertu eta adierazteko bide edo \*metodo bezala; bestetik, zera edo gertakarien berezko izaera bezala.

Dialektika hitzaren grekozko jatorriari galdetuz, badakigu elkarrekin hitzegin, zerbaitetaz ihardun, aztertu, etab. esan nahi duela. Zentzu hori du dialektikak, ikusi duguna izan, horrela dela ziurki jakiteko hurkoarekin elkarrikizketan jartzen garean. Galde-erantzunka, ezeztatuz eta baieztatuz, elkarrekin hitzeginez erabakitzen dugu hark eta nik ikusi duguna, izan, zera bera ote den. Asmo horretan eginiko zenbait elkarrizketa, ordea, eztabaida bilakatzen da, gertakari bat bera ez delako beti berdin ikusi ohi alde eta aldi desberdinetatik begiratu. Horrelakoetan, bi ikusle edo gehiago bakoitza bere lekunetik ari badira, batak ez dela esango du eta besteak badela. Eztabaida horiek, hala ere, bi eratakoak izan daitezke: bateragarriak eta bateratu ezinak. Arraultzearen desegitea eta txitoaren jaitzea, gertakari bat beraren bi alderdi izan daitezkeenez, esaldi bateragarriak izan daitezke elkarrikizketan. Baina egazkinaren hegazkada aztertzen duten bi ikuslek, lekune desberdinetan jar dezakete ikusi dutena, bateraezinak direlarik lekune bat eta bestea. Eztabaidak, beraz, paradoxaren itxura hartuko du ezinbestean. Hain zuzen, ikusgune desberdinen edo aurkakoen azalpenean oinarritzen den elkarrikizketa honi deitu izan ohi zaio zerak eta gertakariak ikusi eta deskribatzeko metodo dialektikoa. Eta metodo berezia da, zeren, \*logika formalaren helburua ezeztapena eta baieztapena elkarrekin ez nahastea denez gero, jarrera dialektikoak gertakizunei buruzko ikusgune desberdin eta aurkakoak agertzea maite bait du. Jarrera dialektikoaren ezagugarria da, ordea, baieztatu ala ezeztatu den horretan ez itotzea, baizik eta batetik bestera igarotzea, beti ere esandakoari kontrajarriz edo jazarriz. Ikusgune dialektiko batetik ezingo dira ikusitako zerak eta gertakariak esakune bakun eta xalo bakarrean agertarazi: gutxienik esakune bikoitzen dinamika eskatzen du dialektikak: baieztapena eta ezeztapena, tesia eta antitesia, dena eta ez dena. Dialektikaren ezaguarri dira, beraz, esakune tetiko-antitetikoak. Esakune bikoitza batera hartzean sortzen da intesia. Intesiak ez du baina adierazi nahi elkarren kontrako esakuneak bakeatu direrik, baizik eta bere baitan jaso dituela tesi-antitesien elkarrekiko ezeztapena eta gaindipena (Aufhebung), bestelakotzean adierazten dena. Bestelakotze hori mugimendua da; mugimenduaren iturria, berriz, ezeztapena. Hargatik burutzen da dialektikaren ibilia ezaren ezean bermatuz. Gertakari bati buruz egindako lehenengo esakunea (tesia) bigarren (antitesian) ezeztatzen da. Elkarrekiko ezeztapen bilakatzen dira bi esakuneak eta ezeztapenezko intesia lortzera iristen. Dialektikaren bidea darabilen pentsaketak ezin du bere burua atsed-